


Itsasertzeko bi arrokkak

Inguruaren eragina islatu nahi izan du Moneok eraikina diseinatzerakoan

KURSAAL JAUREGIA itsasertzean dauden bi arroka balira bezala jarri nahi izan zuen Rafael Moneok bere proiektuan. Itsasoari begira, itsasadarrean eta Zurriolako hondartzaren bazter batean dago Kursaal berria. Ez du zerikusirik, inondik ere ez, garai bateko Kursaal jauregiarekin —hala ere, izena gorde dute—, ez inguruko ezta Donostiako ohiko arkitekturarekin. Moneok arroka itxura eman nahi izan zien eraikinei, eta, horregatik, begiratzen den den lekutik begiratuta hormak berdinak dira: zuri koloreko kristal prentsatu bikoitz batez jantziak. Bi beirategiak, hala ere, ezberdinak dira. Barrukoak lau da, eta kanpokoak kizkurtua edo ondulatua da, eta horrek bereizten ditu bi beirategiak. Tartean, gainera, burdinazko egitura itzel bat du eraikinak. Barrualdean, berriz, egurrak leku berezia du: horma guztiak egurrez estalita daude. Bi kuboak kanpotik antzekoak dira, baina bata bertzea baino aisa ttikiagoa da.

Orotara hiru leiho baino ez dituzte bien artean; hala ere, beirategi bikoitzak argia sartzen utziko du. Bi leihok Urgull mendi aldera ematen dute —kubo handian— eta besteak Uliara —eraikin ttikian—.



ANDER GILLELEA

Kursaal jauregia, bi tokitatik ikusita. Ikusgarria da benetan.



GARI GARAIALDE

Jauregiak duen bertze bereizgarrietako bat, ezbaierik gabe, zutaberik ez izatea da. Espazioak, oro har, irekiak dira, eta eskaileretan soilik daude zutabeak. Hasierako egitasmoan, hala

ere, eskailera nagusiak ere ez zuen horrelako loturarik, baina iazko apirilean erori zenetik aldaketa ttiki bat egin behar izan zuten, eta bi aldeetatik lotua ageri da orain. Hori, hala ere, ez da

askorik sumatzen, eta airean dagoen itxura du. Moneo arkitektoak detaile guztiak zaindu nahi izan ditu, eta, hala, besaulkiak ere berak diseinatu ditu.

Bi auditorioek orain arte Donostiak izan ez dituen azpiegiturak eskainiko badituzte ere, Jose Antonio Etxenike Musika Hamabostaldiko zuzendaria kezkatuta agertu da, egokiak izango ote diren. «Nire kezka plazaratu nahi nuen,

Kuboak soilik ez

KURSAAL jauregiaren egitura bi kuboz osatua dagoen arren, bi kuboen artean, azpian, zein bazterretan bertzelako egiturak ditu. Kuboak bezala, gainerako egiturak ere karratuak dira, eta horietan ere kristala da nagusi, baina ez kuboen kanpoaldekoa bezalakoa, arrunta baizik. Zurriola pasealekutik begiratuta, ezkerreko hegalean kafetegia eta jatetxea izango dituen eraikina dago, kubo handiari lotua. Ia ez du paretarik; beirategiak dira nagusi. Bertze muturrean ere antzerako egitura dago, baina kuboetatik nabarmenago ateratzen dena. Gune horrek 1.100 metro koadroko eremua hartzen du, eta bertan egonen da erakusketa aretoa.

Biltzarretarako aretoak kuboen azpian daude, lur azpian. Argi naturalik gabeko gunea da, nahi adina bider zatika daitekeena. Hortaz, bada, kuboak eurak bi auditorio dira, eta ez Kursaal jauregi osoa.

ikusten nuelako gaur egungo ekipamenduekin Kursaalak ezin zuela hartu Musika Hamabostaldiren zenbait ekitaldi, batez ere tamaina handikoak: operak eta abar». Hori, hala ere, argituta dago, eta Udalarekin zein Aldundiarekin izandako harremanen ostean arazo horiek zuzenduko direla ziurtatu zuten bai Odon Elorza alkateak, bai Etxenikek berak ere.

TELEFONOAK: 943 30 02 22

Egunkaria 902 30 02 23

FAXA: 943 30 07 07

e-mail: harpidetza@egunkaria.jalgi.com

web gunea: www.Egunkaria.com



BAI,

HARPIDETZA
SAILA?



JAR ZAITEZ

GUEREKIN

HARREMANETAN

HARPIDETZA BERRIAK

IRADOKIZUNAK...

PROMOZIOAK...

ZALANTZAK...

GALDERAK...



JUAN MARI ARZAKEK
EGUNERO JASOTZEN DU
EGUNKARIA BERE ETXEAN

GUERE BIZITZA
EUSKARAZ
EGIN NAHI
BADUGU, ZER HOBE
GOIZEAN GOIZ
EGUNKARIA
IRAKURRIZ
HASTEA BAINO